

Arrigorriagak ibilbide turistiko bat izango du

Arrigorriagako Udalak auzokide nahiz bisitariei herriaren eta Euskal Herri osoaren historia hurbiltzea xede duen 'Harri gorrien mezua' doako ibilbide turistikoa aurkeztu du. **Zortzi etapa dituen kilometro eta erdiko ibilbidea** zehaztu du herriko lekurik bereizgarrienetan zehar. Ibilbidearen ardatz nagusia Padurako Bataila da, herriari oraingo izen eman eta 888. urtean Bizkaiko Jaurerriaren sorrera markatu omen zuena.

Arrigorriaga Euskal Herriaren historiarekin lotzen duen gertakari honetatik abiatuta, ibilbideak denboran barna bidaiatzeko aukera ematen du, euskararen jatorrian eta euskal mitologian sakonduz eta Ameriketarako emigrazioa, industrializazioa, Foru Erregimena eta Karlistadak bezalako fenomenoek nondik norakoak arakatuz.

Ibilbidearen inaugurazioa larunbatean egingo da, 12.00etatik 14.00etara bitartean, eta bertan, antzezle batzuek, ibilbidean birsortutako garai desberdinen antzera karakterizatuta, Arrigorriagako kultura eta historiaren alderdirik nabarmenenak eta Euskal Herriarekiko harremanak azalduko dizkie bisitariei.